



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2022ko abendua	
ANTIMIKROBIANOEN ERABILERAZ KONTZIENTZIATZEKO MUNDUKO ASTEA	1 Jarraitu irakurtzen
INFAC BULETINERAKO GAI BERRIAK	2 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA. AEMPS-EN ALERTAK Janus kinasaren inhibitzaileak: segurtasun-informazioa eguneratzea. Hidroxietyl-almidoi soluzioak: merkaturatze-etetea Klormadinona eta Nomegestrol azetatoa: meningioma-arriskua minimizatzeko neurriak	3 Jarraitu irakurtzen
AMOXIZILINA 250 mg/5 ml-ko SUSPENSIO PEDIATRIKOEN HORNIDURA-ARAZOAK	4 Jarraitu irakurtzen
HIPOGLUZEMIAITZAILEEN DESINTENTSIFIKAZIOA ADINEKO PERTSONENGAN: URM OHAR BERRIA Medikamentuak zentzuz erabiltzeko oharra, 8. zk., 2022ko iraila	5 Jarraitu irakurtzen
18. COVID-19AREN AURKAKO TXERTOEI BURUZKO FARMAKOZAINZA TXOSTENA	6 Jarraitu irakurtzen
HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA BERREZAPRPENAK 2022ko azaroko garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu	7 Jarraitu irakurtzen

1

ANTIMIKROBIAENOEN ERABILERAZ KONTZIENTZIATZEKO MUNDUKO ASTEA

Azaroaren 18a [Antibiotikoak Zuhurtziaz Erabiltzeko Europako Eguna](#) izan da, Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC, ingelesezko siglen arabera) bultzatutako ekimenari esker. Zentro hori, urtero 2008az geroztik, profesionalai, erakundeei, agintariei eta, oro har, publikoari zuzendutako kanpaina bat gidatzen ari da, osasun publikoko arazo larri honetaz kontzientziatzeko; mundu osoan egiten den antibiotikoen erabilera gehiegizkoaz eta desegokiaz, alegia.

Aurten, Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO), Ingurumenerako Nazio Batuen Programak (UNEP), OMEk eta Animalien Osasunaren Mundu Erakundeak (WOAH) Lau Aldeko Aliantza bat osatu dute, [Antibiotikoen ErabileraZ Kontzientziatzeko 2022ko Munduko Astea](#) babesteko (azaroaren 18tik 24ra egin da).

Hautatutako gaiak, "**Prebenitu dezagun elkarrekin antimikrobianoen kontrako erresistentzia**", sektoreen arteko elkarlanerako deia egiten du, eta "One Health" ikuspegia indartzen du, "Osasun Bakarra", pertsonentzat, animalientzat eta planetarentzat osasun optimoa lortzera bideratua. Ikuspegi orokor horrekin, Lau Aldeko Aliantzak [gida bat egin du kanpainari babesa emateko](#), informazioa, ideiak eta proposamenak emanez, alderdi interesdunak inplika daitezzen eta beren jarduerak presta ditzaten tokian-tokian.

Bestalde, AEMPSek, Antibiotikoekiko Erresistentziaren Aurkako Plan Nazionalaren (PRAN) koordinatzaile gisa, [Antibiotikoak Zuhurtziaz Erabiltzeko PRAN jardunaldia](#) antolatu zuen azaroaren 18rako.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

INFAC BULETINERAKO GAI BERRIAK

Dakizuenetz, FarmaHitzak informazio-orri hau egiten ari garen Lehen Mailako Arretako farmazialariok INFAC buletinaren Erredakzio Batzordeko kide ere bagara, Osakidetza, Osasun Saileko eta EHUKo beste profesional batzuekin batera.

Une honetan 2023ko bigarren seihilekoan egingo diren buletinak planifikatzen ari gara, eta EAEko osasun-profesionalak zaretenez INFACen hartzaile nagusiak, honen bidez, laguntzeko eskatzen dizuegu, eta mesedez, buletinetan lantzeko interesgarriak izan daitezkeen gaii buruzko ideiak edo iradokizunak bidaltzeko.

Posta elektronikoko helbide honetara bidal ditzakezue: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Ekarpen guztiak ongietorriak eta baloratuak izango dira.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA. AEMPS-EN ALERTAK

- **Janus kinasaren inhibitzaileak hanturazko gaixotasun kronikoetarako: kontrako erreakzio larrien arriskuak minimizatzeko gomendioak. EGUNERATZEA**

AEMPSek [Segurtasun-ohar bat eguneratu du](#) azaroaren 23an, eta gomendio hau egiten du:

- 65 urtetik gorako pazienteek, paziente erretzaileek edo denbora luzez erre izan duten erretzaile ohiek, bai eta arrisku kardiobaskularreko faktoreak edo neoplasiak garatzeko beste arrisku-faktore batzuk dituzten pazienteek ere, soilik ahal izango dituzte JAK inhibitzaileak jaso alternatiba terapeutiko egokirik ez dagoenean. Era berean, zuhurtziaz erabiliko dira aipatutakoez bestelako TEBen arrisku-faktoreak dituzten pazienteetan.
-

- Aipatutako arrisku-faktoreen bat duen pazienteren bat tratatzen bada, beste aukera terapeutikorik ez dagoelako, dosia murriztu beharko da.
- JAK inhibitzaileekin tratatutako paziente guztietan, aldizka azterketa dermatologikoa egitea gomendatzen da.

➤ **Hidroxietyl-almidoi soluzioak: Espainian merkaturatze-etena egongo da, abenduaren 15ean hasita**

[MUH\(FV\) 03/2022](#) informazio-oharrean jakinarazi zen Espainian hidroxietyl-almidoi soluzioak merkaturatzeari utziko zitzaioala laster, eta horri jarraipena emateko, AEMPSeK [beste Informazio-orri berri bat](#) eman du, etete horren benetako data ezartzeko: **abenduaren 15a**. Neurri horrek **Isohes, Volulyte eta Voluven** medikamentuei eragiten die. **Data horretatik aurrera, ezingo dira medikamentu horiek erabili.**

➤ **Klormadinona azetatoa eta nomegestrol azetatoa: meningioma-arriskua minimizatzeko neurriak**

Laborategi fabrikatzaileek, AEMPSekin bat etorriz, [gutun bat bidali diete osasun-arloko profesionalei](#), jakinarazteko meningioma (bakarra edo anizkoitza) garatzeko arrisku handiagoa dagoela klormadinona azetatoa edo nomegestrol azetatoa erabili ondoren; batez ere, dosi altuetan eta luzaroan erabilia. Arriskua handitu egiten da metatutako dosiekin. Europako herrialde batzuetan eskuragarri daude dosi altuetan (klormadinona azetatoa 5-10 mg/konp. edo nomegestrol azetatoa 3,75–5 mg/konp.), zenbait alderazio ginekologikotarako terapia gisa.

Espainian, aldiz, klormadinona azetatoa eta nomegestrol azetatoa dosi baxuetan bakarrik merkaturatzen dira (2 mg eta 2,5 mg/konp., hurrenez hurren), etinilestradiol eta estradiol antisorgailuekin batera. Oraingoz ez da identifikatu arrisku-igoerarik medikamentu hauekin, baina ezin da baztertu metatutako dosi handiekin.

Medikamentu hauek kontraindikaturak daude meningioma edo meningioma-aurrekariak dituzten pazienteentzat.

Pazienteak praktika klinikoaren arabera monitorizatu behar dira. Meningioma diagnostikatuz gero, tratamendua eten egin behar da behin betiko.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 AMOXIZILINA 250 mg/5 ml-ko SUSPENSIO PEDIATRIKOEN HORNIDURA-ARAZOAK

Azaroaren 18an, ikusita Laboratorios Normon, S.A. eta Sandoz Farmacéutica, S.A. enpresak atzeratuta zebiltzala amoxizilinen ahotiko suspentsio pediatrikoen hornidurarekin, AEMPSeK ohar bat argitaratu zuen, [hornidura-arazoak arintzeko eta paziente guztien tratamendua bermatzeko gomendioak](#) emateko. Bestalde, Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzak jarraibide batzuk eman zituen farmazia-bulegoan ordezkapena egiteko. Horretarako, **errezetak paperean inprimatu behar dira.**

Ez badago amoxizilinarik 250 mg-ko ahotiko soluzioan, hurrenkera honetan ordezkatu behar da:

- 1- Amoxizilina Normon 250 mg ahotiko suspentsiorako hautsa EFG zorroak, 30 zorro (CN700273)
- 2- Aipatutako hori ez badago, hauetako edozein:
Amoxizilina Normon 500 mg EFG konprimatuak, 20 konprimatu (CN 694726)
Amoxizilina Almus 500 mg EFG konprimatu dispertsagarriak (CN 713505)
Amoxizilina Ardine 500 mg EFG konprimatuak (CN694743)

Medikamentu horiek 500 mg-ko konprimatu artekadunetan aurkezten dira, eta konprimatu erdia emateko zatitu daitezke, edo uretan disolbatu edo disgregatu ere.

Amoxizilinen 250 mg-ko zorroen preskripzioak ere ordezkatu daitezke 500 mg-ko konprimatu artekadunekin, ahotiko suspentsioen hornidura-arazoak irauten duen bitartean.

Suspentsio-ontziak, beraz, 500 mg-ko konprimatuak zatikatuz dosia doitzea ezinezkoa den pazienteentzat gorde beharko dira; kasurako, 6 hilabetetik beherakoentzat.

Azaroaren 23an, AEPMSk [MUH 17/2022](#) oharra argitaratu zuen, arazo horri buruzko informazioa eguneratzeko. Gaur egun, Normon eta Sandoz laborategiak ari dira modu jarraituan merkatua hornitzen. Hala ere, gerta liteke hornidura normalera bueltatzeak denbora behar izatea, eskaria nabarmen handitu baita, arnas-infekzioen intzidentzia handia eta bi laborategietan izan dituzten ekoizpen-arazoak aldi berean gertatu izanak eraginda. Hortaz, farmazian medikamentuak ordeztuko prozedurak bere horretan jarraituko du, beharrezkoa izanez gero.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 HIPOGLUZEMIAZAILAEN DESINTENTSIFIKAZIOA ADINEKO PERTSONENGAN: URM OHAR BERRIA

[Medikamentuen zentzuzko erabilerarako 8. oharra](#) argitaratu da, 2022ko irailekoa. Bertan, gomendioak jaso dira HbA1c < % 6,5-7 duten **adineko pertsonen tratamendu hipogluzemiazailea desintentsifikatzeko**, hipogluzemia-arriskua eta haren ondorioak (erorikoak, narriadura kognitiboa eta ospitalizazioak) areagotuko dituen gaintratamendua saihesteko.

Dementia, bizi-itxaropen mugatua edo iraupen luzeko diabetesa duten adineko ahuletan, pluripatologikoetan, HbA1c-ren maila ez hain zorrotzak onar daitezke (% 8-8,5).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 18. COVID-19AREN AURKAKO TXERTOEN BURUZKO FARMAKOZAINZA TXOSTENA

[Txosten honetan](#), segurtasun-gai hauei buruzko informazioa eguneratu da:

- Comirnaty® (Pfizer) eta Spikevax® (Moderna): menstruazio-odoljario ugaria txerto horien kontrako erreakzio posible gisa identifikatzen da.
- Spikevax®: urtikaria identifikatzen da kontrako ondorio posible gisa.
- Jcovden® (aurretik COVID-19 Vaccine Janssen izenez ezaguturikoa): aurpegiko paralisia identifikatzen da kontrako ondorio posible gisa.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA BERREZAPRPENAK

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA esanguratsuenak:

- **Amoxizilina-klabulaniko ahotiko suspentsioak 250/62,5 120 ml; 125/31 120 ml eta 100/12,5 120 ml.** Hornidura irregularra eta aldakorra. Unean-unean galdetu behar da banaketa-biltegietan ba ote dagoen.
 - **Bonalfa®** 4 mcg/g, 50 g pomada (Takalzitola). Beste tratamendu batzuk erabiltzea baloratu.
 - **Buprex® 0,2 mg 20 konp.** (Buprenorfina). Beste tratamendu batzuk erabiltzea baloratu.
-

- **Bydureon®** 2 mg aurrez kargatutako lumak (Exenatida). 6 hilabete baino gutxiagoko iraungitzea duten unitateak merkaturatzeko baimena eman da.
- **Claritromicina Sandoz® ahotiko suspentsioa** 100 ml (Klaritromizina). Beste aurkezpen batzuk erabiltzea edo printzipio aktiboa aldatzea baloratu.
- **Coliropa atropina®** 10 mg/ml kolirio soluzioa, 10 ml (Atropina). Banaketa kontrolatua. Abenduaren erdialdera atzerriko unitateak jasotzea espero da.
- **Daivonex®** krema **100 g** (Kalzipotriola). Beste tratamendu batzuk erabiltzea baloratu.
- **Dogmatil® 50 mg/ml anpoilak** 2 ml (Sulpirida). Biltegiren batean badago. Printzipio aktibo bera ahotik ematea edo beste alternatiba batzuk baloratu.
- **Dolomedil®** 500 mg/10 mg 20 konp. (Parasetamola/Kodeina). Alternatiba: konbinazioak beste dosi batzuetan.
- **Eprosartan/HCTZ** 600 mg/12,5 mg 28 konp. (Futuran plus®, Navixen plus®, Regulaten plus®, Tevetens plus 600®). Alternatiba: printzipio aktibo bakoitza bereiz edo antihipertentsiboen beste asoziazio batzuk erabiltzea baloratu.
- **Evenity®** 150 mg 2 aurrez kargatutako lumak (Erromosozumab). 6 hilabetetik beherako iraungitzea duten unitateak merkaturatzeko baimena eman da.
- **Mastical D 500 mg/800 UI®** 30 konp. Mastekagarriak (kaltzio karbonatoa / Kolekaltziferola. Alternatiba bat izan daiteke: Kaltzio/Kolekaltziferolaren beste konbinazio batzuk.
- **Melodene-15®** (0,06 mg/ 0,015 mg) 24+4 konp. (Gestodenoa/Etinilestradiola). Alternatiba: Millesse®. Osaera bera du.
- **Micetal Krema** (30 g, 60 g), **hautsa** (30 g), **gela** (100 g) (Flutrimazola). Alternatiba: beste antifungiko topiko batzuk.
- **MST Continus® 10 mg** Liberazio luzeko 60 konp. (Morfina, sulfatoa). Alternatiba: liberazio azkarreko morfinaren eguneko guztizko dosi bera (Oramorph® ahotiko soluzioa) 4-6 ordurik behin.
- **Orbenin ahotiko suspentsioa** 125 mg/60 ml (kloxazilina). Banaketa-biltegi batzuetan dago eskuragarri. Baloratu beste antibiotiko batzuk erabiltzea indikazioaren arabera.
- **Pantomizina 100 mg/ml ahotik hartzeko pikortatua, 1 flasko 100 ml** (Eritromizina). Alternatiba: Badira beste makrolido batzuk ahotik hartzeko soluzioak edo ahotik hartzeko suspentsioak.
- **Seretide 25 mcg/50 mcg** inhalagailua 120 dosi (Salmeterola/Flutikasona). Alternatiba: osaera bera duten beste medikamentu batzuk.
- **Setofilm® 4 mg, 8 mg** 10 zorro bukodispertsagarriak (Ondansetrone).
- **Sevredol® 20 mg** 12 konp. (Morfina, sulfatoa). Alternatiba: liberazio azkarreko morfinaren beste aurkezpen batzuk.
- **Silkis®** 3 mcg/g hodia 100 g (Kaltzitriola). Biltegi batzuetan dago eskuragarri. Beste tratamendu batzuk erabiltzea baloratu.
- **Singulair 10 mg** 28 konp. (Montelukast). Eskuragarri biltegi batzuetan. Alternatiba: 5 mg-ko aurkezpena.
- **Sinogan 40 mg/ml tantak** 30 ml (Lebomepromazina). Unitate kopuru mugatua atzerriko medikamentuen bidez eskuratzeko aukera (ez da txostenik behar) edo beste tratamendu batzuk baloratu.
- **Stopcold** 5 mg /120 mg 20 konp. (Zetirizina/Pseudoefedrina). Beste tratamendu batzuk erabiltzea baloratu.
- **Suniderma** 1,27 mg/g krema 60 g (Hidrokortisona, azeponato). Alternatiba: 30 g-ko aurkezpenak (krema, pomada).
- **Tofranil®** 10 mg eta 50 mg-ko konp. estaliak (Imipramina). Atzerriko medikamentuen bidez eska daiteke. Ez da txostenik behar.

HORNIDURA BERREZARPENAK:

- **Benestan®** 2,5 mg 60 konp. (Alfuzosina).
- **Daktarin®** 20 mg/g ahotik hartzeko gela (Mikonazola).
- **Clotrimazol Gine-Canesmed®** 100 mg 6 konp. baginalak (klotrimazola).

-
- **Dolocatil®** 65mg/ml ahotiko soluzioa (Parazetamola).
 - **Emerade®** 300 mcg aurrez kargatutako lumak (Epinefrina).
 - **Altellus®** 300 mcg aurrez kargatutako lumak (Epinefrina).
 - **Trandate®** 100 mg konp. (Labetalola).
 - **Rytmonorm®** 150 mg konp. (Propafenona).
 - **Otix®** Soluzio otikoa, tantak (Trimetoprima, Dexametasona, Polimixina B).
 - **Rifinah®** 300 mg/150 mg 60 konp. (Isoniazida/ Riifampizina).

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke: Hornidura-gabezien taula.

- Presbiden, zuzenean taula honetara daraman "[Hornidura ezak](#)" botoi berria txertatu da.



[CIMA-AEMPS: AEMPSren medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honetako edukia osatzeko, Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek sortutako hileko buletina egokitu da